

LITERATURA • J.V. Foixen obra osoa berrargitaratuko dute Katalunian

Moderno klasiko bat

Abangoardiak katalanez mintza zintezkeela polito erakutsi zuen Foixek

Josep Vicenç Foixek (Bartzelona, 1893-1987) itzal handia utzi du Kataluniako literaturan. «Berriak kilikatzen nau, zaharrak maitemintzen» maxima ardatz hartuta, katalanezko klasikoak abangoardiekin uztar zitezkeela erakutsi zuen, egungo idazle katalanen eredu bilakatzeraino.



Gerardo Markuleta Foixen hamar poema itzuli zituen *Zenbait poeta katalan*.

Antologia libururako: *Bakarrik, eta doluz*; *Herri hartara heldu nintzen*; *Gogoaren bidez zabaltzen zait natura*; *Lotan naizela ikusten dut argi*; *Denok bilduko gaituk portuan dama ezezagunarekin*; *Azken komunikatua*; *Mugak*; eta *Berba indartsuz kotatzen jakin*. «Antologia egitean, poeta bakoitzetik nire

«Bere lanek oso itxura bitxia zuten»

gustukoenak ziren testuak aukeratu nituen. Hainbat poeta handiren lan hautaketa bat da».

Foixi itzuli zizkion testuei buruz, «oso itxura bitxia» zutela dio Markuleta. «Poemak egiteko modu diferente eta bere garaian oso orijinala zuen. Prosa poetikoa landu zuen asko. Izenburu izugarri luzeak jarri zituen zenbaitetan, eta errealtatea adierazteko oso modu berezia zuen».

Itzultzaile lanari berari buruz, puntuaziorik gabeko testu luzeak itzultzean izan omen zuen zailtasun gehien. «Poema batzuk geldiunerik gabeak dira hasi eta bukatu artean».

Egunerokotasunaren alderdi ezkutua eta maitasuna ageri dira Markuleta euskaraturiko poemotan, eta bere ustez, bitxia da Foix eta beste hainbat egile katalan hain ezezagunak izatea guretzat. «Baina ezagutza falta hori batez ere irakurleen artean ematen dela uste dut. Euskal poetek, nik uste, gehiago jarraitu dituzte katalan egileen lanak».



kultur planteamenduei buruz. Aldizkariko zuzendari izatera ere heldu zen. Kataluniako hizkuntza eta kultura bultzatu nahi zituen bereziki, eta modernitatea hartu zuen ikur. Modernitatea arlo guztietan gainera. Horrela, arkitektura arrazionalista bezain sutsuki

defendatu zituen tenis eta hegazkinzale taldeak. *Gertrudis* (1928) eta *Krtu* (1932) liburuak plazaratu zituen.

Francoren diktadurak ez zuen, ordea, abangoardiarik maite. Ezta Kataluniako kultura bultzatzeko asmorik ere. Kazetaritza lanak utzi zituen Foixek. Baina poesia eta hitz laua jorratzen jarraitu zuen, diktadurak bere testuak argitara emateko zailtasunak ekarri bazizkion ere. *Sol i de dol* (*Bakarririk, eta doluz*) poesia lana da horren adibide, nahiz eta 20 urte lehenago amaitua izan, 1947a arte ez baitzuen argirik ikusi. Soneto bilduma hori urrats ikaragarria izan zen Kataluniako literaturgintzan, garai guztietako idazle katalanen trazak hizkuntza moderno eta aberatsean jorratu baitzituen. Llull eta March gailur zituen jarduera modernitateari ekarri zuen.

Halaber, arte mugimendu abangoardista berriekin zubilanak bete zituen. Idazketa automatikoaren erabiltzaile, surrealista, itzultzaile. (Tzara, Soupault, Eluard, Breton... katalanez eman zituen).

Batez ere poeta

Baina bere poeta lanak irarri du bereziki Foixen jarduna Kataluniako literaturen historia nagusian. Felipe Juaristik Gerardo Markuletaren *Zenbait poeta katalan*. Antologia lanari idatzi zion hitzaurrean dioenez, «sonetogile aparta izan zen, Quevedoren tamainakoa bai».

50etako hamarkada aldean, zenbait gaztek bere lanaren balioa aldarrikatu zuen. Pere Gimferrer eta Gabriel Ferrater idazleak tartean ziren, eta baita hainbat artista plastiko ere. Sariak jasotzen hasi zen. Joan Manuel Serratek *Ès quan dormo que hi veig clar* (*Lotan naizela ikusten dut argi*) poema ezagutza eman zuen.

Jordi Cornudella poeta eta adituak Foixen obra osoaren argitarapen berri bat prestatu du orain Edicions 62 etxearekin. Lehen alea kalean da jada, eta bertan idazlearen hitz lauuko zein bertsozko lan liriko guztia bildu ditu, XXI. mende atarian XX. mendeko idazle handienetarikoa bat omentzeko.

«Bat dituk izatea eta hiltzea: dena aldatzen duk eta denak irauten dik», idatzi zuen 1973ko urtarilean Gabriel Ferraterri eskaini zion *Denok bilduko gaituk portuan Dama Ezezagunarekin* lanean, eta klasikotasuna eta modernitatea ulertzeko bere moduaren arrasto bat gehiago utzi zuen.

Amagoia Iban • Donostia

J.V. DEI ZIEZAIOTEN NAHIAGO zuen Foixek, eta halaxe gogoratua da literatura munduan. Gozogile batzuen semea, Zuzenbide ikasketak hasi zituen unibertsitatean, baina ordu gehiago eman zuen unibertsitateko liburutegian klasiko katalan zein latinoak irakurtzen eta eskuz kopiazen, beste ezertan baino. Zuzenbidea alde batera utzi, eta klasikoekiko, literaturarekiko zuen grina elikatzea erabaki zuen. XV. mendeko poeta eta bardo katalanak maite zituen. Ausias March bereziki. «Irakur itzazue klasikoak», esan ohi zuen, eta bere lana da irakurketa horien lehen emaitza: Klasiko katalanen egitura abiapuntu hartu, eta mami erabat modernoak txertatu zizkion, uztartze borobil bat lorturik.

Oso ongi ezagutzen zituen fran-

tses eta italiar egile modernoek eraginez, katalanera modernoki erabil daitekeen hizkuntza dela erakutsi zuen. Modernotasuna ez zuen, ordea, literaturaren iturritik bakarrik edan. *L'Amic de les Arts* publikazioko kazetari ere izan zen, eta Miro eta Daliren —lagunak zituen biak— Bartzelonako lehen erakusketak aurkeztu zituen bertan. Arte abangoardien jarraitzaile eta bultzatzaile izan zen kazetari eta zale zen aldetik, eta horri buruzko bere planteamenduak jasotzen dira idatzi zituen hainbat artikulutan.

Denborarekin Accio Catalana Republicana izena hartuko zuen Accio Catalanako sortzaileetarikoa bat ere bazen, eta talde horrek abian jarritako *La Publicitat* aldizkarian idatzi zuen bereziki bere